

## **ANA OTADUI BITERI, BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO PRESIDENTERAKO HAUTAGAIA**

Ana Otadui Biteri (Elorrio, 1976) Bizkaiko Batzar Nagusietako egungo presidentea da. Zuzenbidean lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatetik eta funtzionario da, gaur egun eszedentzian, Bizkaiko Foru Aldundian. Bere ibilbide politikoa hasi zuen Elorrioko Udalean, herri horretako lehen alkate andre bihurtu zen eta Eusko Legebiltzarkide bilakatu zen ia aldi berean. 2015ean Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldun izendatua izan zen eta oraingo honetan EAJ-PNVko alderdikide jeltzaleek berarengan jarritako konfiantza berretsi dute hemendik aurrera ere kargu horretan jarrai dezan.

Otaduik ibilbide profesional luze eta aberatsa egin du orain arte eta berau da, hain zuzen, bere izaera bizia eta zailtasunen gainetik egiteko daukan gaitasunaren erakusle nagusia. Udal eta foru politikari eman dien dedikazioak erreferente bihurtu du herri kargudun jeltzaleen belaunaldi berrian. 46 urte dituela Ana Otadui Biterik bere ahalegina eta lana eman dizkie lehenengo eta behin Elorrio jaioterriari, lau urtetan EAJ-PNVko zinegotzi eta ondorengo lau urtetan alkate izan baitzen, eta ondoren Bizkaiko herrialde osoari, herrialdeko organo legegilea den Batzar Nagusietako Presidentetzan.

Bizkaiko Foru Aldundian Administrazio Orokorreko funtzionario tekniko da, gaur egun eszedentzian. Bere ibilbide profesionala enpresa pribatuan hasi zuen, ondoren Durangoko Udalean lan egin zuen eta enplegu-beka bat eskuratu zuen Deustuko Unibertsitatean, Euskal Ikasketen Institutuan. Euskalduna da, laugarren hizkuntza-eskakizuna dauka egiaztatuta (C2) eta ingelesa menderatzen du.

2015etik gaur egunera arte Bizkaiko Batzar Nagusietako presidente izan da. Lehenago Elorrioko zinegotzi eta alkate lana uztartu zuen Eusko Legebiltzarreko lanarekin, Euzko Abertzaleak taldeko eusko legebiltzarkide izan baitzen 2009ko uztailetik 2015era arte. Euskal ganberan EAJ-PNVren interesak ordezkatu eta defendatu zituen Erakundeak, Segurtasuna eta Justizia ; Bateriaezintasunak; Araudia eta Gobernua; eta Ogasuna eta Aurrekontuak batzordeetan, azken honetan presidenteorde izan zelarik. Halaber Parlamentuko Estatutuaren batzordeko buru izan zen.

Zuzenbidean lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Emakume prestatua da, langilea, eta alderdikide dituen kideen babesa eta errespetua irabazi du. Gaur egun Elorrioko Uri Erakundearen Uri Buru Batzarreko kide ere bada.

Foru Erakundearen burutzan eman dituen legealdi bi hauetan Ana Otadui Biteriren bi helburu nagusiak izan dira Bizkaiko Legebiltzarra ezagutzera ematea eta berdintasunaren alde lan egitea. Zentzu horretan hainbat ekimen sustatu ditu Bizkaiko Batzar Nagusiak herrialdeko herritarrengana hurbiltzeko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa islatu zen 2017ko Berdintasun Planaren. Bizkaiko parlamentua

aitzindaria izan da gai honetan Estatu mailan. Apustu erabakigarri hau burutu berri dute bigarren plana onartzearekin batera.

Geratzen zaion denbora libre apurra familiari eta lagunei ematen die. Herriko txokoetatik ibiltzea atsegin du eta amarengandik jaso du lore eta landareekiko zaletasuna.